

munduak guztiontzat behar ko luke


KALE DOR KAYIKO

Ane Pirat a Israelen
et xera joan da gaur.
Israelen familiariburuz
lan bat egin behar dut e
eskolarako.



OSO ONDO MAITEA.
ESKOLA OSO GARRANTZITSUA DA.
ZURE ARREBAK AURTEN JASO DU KALE DOR KAYIKO SARIA,
6. MAILA ONDO GAINDITU DUELAKO.
ETA HURRENA, ZUK

AMA,
ESKOLAKO LAN BAT
EGITERA ETORRI
GARA





NIK EZ NUEN IKASTEKO
AUKERARIK IZAN. BAINA GURE ONDORENGOEK
JENDE IKASIA IZAN BEHAR DUTE, NAHI DUTENA
EGITEKO AUKERA IZAN DEZATEN


GURE UMEAK
BIZKORRAK DIRA BEHINTZAT.
BIHARKO IJITOAK URRUTIRA
IRITSIKO DIRA, SEGURU!



ZE BANDERA
POLITA!

HORI IJITUEN BANDERA DA.
BANDERAREN GOIKO PARTEA URDINA DA
ZERUAGATIK ETA BEHEKOA BERDEA,
BELARRAGATIK. IJITO HERRIA NOMADA IZAN DA;
ZERUA IZAN DU TEILATU
ETA ZELAIA, ZORU.





TIO MANUEL OSO GARRANTZITSUA
DA GUREAN. URTEAK ETA JAKINDURIA PILATU
DITU ETA ASKO DAKI BIZITZAZ.
BETI DAGO LAGUNTZEKO PREST

BAI, BAI, BISTAKOA DA
MAITE DUZUELA.
A ZER FESTA ANTOLATU
DIOZUENA!

LASAI ISRAEL,
GAUR IZUGARRI IKASI DUT
ZURE FAMILIARI BURUZ.
ETXEKO LANAK ONDO EGINDA
DAUZKAGU!

ANE, ORAINDIK
EZ DITUGU ESKOLAKO
LANAK AMAITU!



Irabazi asmorik gabeko Ijito Kultur Elkarte hau 1989. urteaz geroztik da martxan. Izenak "biharko ijitoak" esan nahi du. Elkartearen helburua ijitoei egungo gizartean moldatzeko behar diren tresnak bereganatzen laguntzea da.



Berdintasuna, elkartasuna, kulturartekotasuna eta errespetua dira elkartearen lau hanka nagusiak.



Ijito Herriaren kultura eta ohiturak ezagutzera emateko lan egiten du elkarteak, ezezagutzak sortzen dituen aurreiritzien kontra egiteko.

Bulego Nagusia: Ondarroa 18 (Lonja), Bilbo
Telefona: 944598002
Faxa: 944598003
Webgunea: www.kaledorkayiko.org